

LANAREN EKONOMIA IKASTAROA

4. gaiaren praktikak

OTAZUA GARMENDIA, GARIKOITZ

4. GAIAREN PRAKTIKAK: SOLDATA, LAN KOSTUA, LEHIAKORTASUNA ETA NEGOZIAZIO KOLEKTIBOA

4.1 praktika

LAN KOSTUAK ETA LANGABEZIA

Irakurri jarraian dagoen testua eta azaldu, ikasitako kontzeptuak erabiliz, paradoxa hau: Euskadik Espainiako lan kosturik altuenak ditu, baina, aldi berean, baita langabezia tasarik baxuenetako bat ere.

Euskadik Espainiako lan kosturik altuenak ditu (El País, 2012/03/17)

Euskadin, 3.113 euro izan zen langileko eta hilabeteko batez besteko lan kostua aurreko urteko laugarren hiruhilekoan; aurreko ekitaldiko hiruhileko berean baino %0,7 gehiago. Horrela bada, Euskadi da Espainiako lan kosturik handienak dituen erkidegoa, Vasco Press-ek jakitera eman duenez.

EAEren atzetik, lan kosturik altuenak erkidego hauetan eman ziren: Madril (3.037 euro) eta Katalunia (2.871), %1,6ko igoerekin aurreko urtearekin alderatuta; eta Nafarroa (2.846 euro), %0,3ko igoerarekin. Lan kosturik baxuenak, berriz, erkidego hauetan eman ziren: Kanariak (2.233 euro/langile), azkeneko hamabi hilabeteetan %3,1eko igoera gertatu arren; Extremadura (2.324 euro), %2,9ko igoerarekin; eta Valentzia, %0,7ko igoerarekin, hilabeteko eta langileko 2.377 euroan kokatu arte.

Soldaten kostuari dagokionez ere Euskadi Estatuko lider izan zen. Batez beste, Euskadiko soldaten kostua 2.392 euro izan zen langileko eta hilabeteko, aurreko urtean baino %0,9 gehiago. Espainiako batez bestekoa gehiago igo zen azkeneko hamabi hilabeteetan, %1,4 hain zuzen, baina Euskadiko zenbatekoaz azpitik kokatu zen (2.020 euro langileko eta hilabeteko). Gainerako kostuei dagokienez, Euskadin %0,2 igo ziren azkeneko urtean, 721 eurora arte pertsonako eta hilabeteko. Estatu mailan, berriz, %2,2 igo ziren azkeneko hamabi hilabeteetan, 663 euroan kokatu arte langileko eta hilabeteko.

4.2 praktika

SOLDATEN BEHERANZKO ZURRUNTASUNA

Adierazi zer abantaila eta desabantaila izan ditzakeen soldaten beheranzko zurruntasunak.

4.3 praktika

NEGOZIAZIO KOLEKTIBO DESZENTRALIZATUA

Adierazi zer abantaila eta desabantaila dituen negoziazio kolektiborako sistema deszentralizatu batek.

4. GAIKO PRAKTIKEN ERANTZUNAK

4.1 PRAKTIKA

Euskal ekonomiak lan kostu altuak dituen arren Estatuko batez bestekoarekin alderatuta, bertako langabezia tasa batez bestekoa baino baxuagoa izan ohi da. Eta horren arrazoa da euskal enpresek lehiakorragoak izatea lortzen dutela produktibitate handiari esker. Lan kostua altua da baina ez ordea lan kostu unitarioak, produktibitate altuari esker.

Eduki teorikoetan ikusi dugun moduan, aldagai garrantzitsuena ez da lan kostua, produktibitatearekin duen erlazioa baizik. Lan kostu handiko ekonomiak oso lehiakorak izaten dira, aldi berean produktibitate maila handia badute. Aldiz, gerta liteke lan kostu txikiko eskualdeak edo ekonomiak ez izatea lehiakorak, produktibitate baxua dutelako. Horren ondorioz, langabezia tasa handiak dituzte.

4.2 PRAKTIKA

Soldaten beheranzko zurruntasunak krisi ekonomiko baten ostean langabeziak gehiago irautea eragin dezake. Krisiak irauten duen bitartean enplegu gehiago galtzea eragin dezakeela ere esan dezakegu. Zailtasunak dituzten enpresek ezin badituzte soldatak jaitsi, itxi egingo dira eta lanpostuak galduko dira. Aldiz, soldatak jaisteko aukera badute, aurrera ateratzea lortuko dute beharbada.

Soldaten zurruntasunak alderdi positiboak ere baditu:

- Herritar gehienek bizi maila mantentzea ahalbidetzen du eta, horri esker, eskaria ez da jaisten (oso garrantzitsua atzeraldi garaietan).
- Ziurgabetasuna murrizten dute, bai soldatapekoena, bai enpresena. Biek etorkizuna planifikatu ahaliko dute, beraz.
- Langileen produktibitatea bere horretan mantentzen du.

4.3 PRAKTIKA

Negoiazio kolektiborako sistema deszentralizatu bat lagungarria izan daiteke krisi garaietan soldatak eta lan baldintzak bizkorrago egokitzeko, eta hori, 4.2 praktikan adierazi den moduan, lagungarria izan daiteke horrenbeste lanpostu ez galtzeko. Soldatak enpresaren produktibitatearen arabera egokitzen dira. Gaur egun, hitzarmena ez aplikatzearen bidez lortzen da hori Espainiako ekonomian.

Baina arrisku bat dago: gerta liteke soldata eta lan baldintzak izatea egokitzen diren elementu bakarrak. Gerta liteke enpresek ez egitea berrikuntzak egiteko

ahaleginik eta haien estrategia izatea lan kostu baxuetan oinarrituta lehiatzea. Bestalde, sistema deszentralizatu batean, soldata aukera zabalagoa da, eta, beraz, errentaren banaketa primarioan desoreka handiagoak daude.

